

Ozaze Jaurgainean

O-za ze Jaur-gai - ni-an bi zit-roin do - ra - tü, A thar-ra ze-ko

7 Jau-nak ba - ta dü gal-da - tü; ü-ken dü ar-ra-pos - tü ez - di - re-la hun -

13 tü; hun tü - ri - ik di - re - ni - an, Ba - tto ü - ke - nen dü.

Portaliaa juan zite,
ahizpa maitia,
ingoiti horra düzü
Atharratzeko Jauna;
otoi, erran izozü
ni eri nizala,
zazpi egün horietan
ohean nizala.

Klara, zoaza orai
salako leihora,
iparra ala hegua
denez jakitera;
iparra baldin bada,
goraintzi Salari;
ene korpitzaren txerka
jin dadila sarri.

Ama, juanen gira
oro elkarreki,
etxerat jinen zira
xangri handireki,
bihotza kargatürik,
begiak bustirik,
eta züre alaba
tunban ehortzirik.

Ama, saldu nauzü
biga bat bezala,
bai eta desterratü
oi! Espainiala.
Aita bizi üken banü,
ama, zü bezala,
ez nündüzün ezkontüren
Atharratzeko Salala.

Lara.....
Aita bizi üken banü,
ama, zü bezala,
ez nündüzün ezkontüren
Atharratzeko Salala.